

KONTROL MOZIOA

apirilean ezarri beharreko doako ontzi-aldaketari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko apirilaren 19an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 4ko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren (GGLA) batzarrean, gai zerrendaren 4. puntua onartu zen aho batez: “2021eko apirila-2022ko martxorako MUGI tarifei gehitu beharreko ontzi-aldaketak doakoak direla onartzea”.

Beraz, apirilaren 4tik, Mugi sistemaren bitartez egindako ontzi-aldaketa guztiek, Donostiakoek barne, doakoak izan behar zuten. Baina ez da horrela izan, eta Donostian egon daitezkeen joan-etorriko ustezko ontzi-aldaketa “faltsuak” direla medio, Donostiako Dbusen ez da doakotasuna ezarri.

Aipatutako otsailaren 4ko batzar berean, ontzi-aldaketa “faltsu” horiek aztertzen dituen txostena egiteko bederlatzi hilabete behar zirela azaldu zen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan. Baina hori egin bitartean adostutako datan, 2021eko apirilean, doakotasuna ezarriko zela onartu zuten GGLAko partaide guztiek (Donostiako Udala barne) eta horrela ezarri da gainerako udalerrietan. Ez hori bakarrik: halaber, doako ontzi-aldaketak izan ditzakeen ondoriozko inpaktu ekonomikoetarako, Dbus-en konpentsazioetarako mekanismo ekonomiko bat ezarriko zela adostu zen batzar horretan.

Honi guztiari buruz interpelatu genuen apirilaren 19ko batzordeetan Garraio eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkaria: doakotasuna ez ezartzeko arrazoiei buruz, joan-etorri “faltsuen” datuei buruz, doakotasuna ezartzeko asmo eta epeei buruz... baina ez genuen inolako erantzun zehatzik jaso. Soilik doakotasunaren alde dagoela Udal Gobernuak, baina ezarpena dagokion ondorioekin egin behar dela.

EH Bildutik gogorarazi behar dugu orain arteko ontzi-aldaketa intermodalak egon badaudela eta administrazio guztiek onartu zituztela 2013az geroztik, MUGI sistema ezarrita. Haien bidez, gaur egun, egiten diren bi

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

bidaietatik txartel garestiena kobratu eta merkeenaren % 25 ordaintzen da; orain deskontu hori handitu eta bigarren garraiatzailean doakotasuna ezarri nahi da.

Argi dugu Donostiako Udalak hartutako azken erabaki honek erabiltzaileak baino ez dituela kaltetzen. Aspaldiko eskaera baita garraiatzaile ezberdinen arteko ontzi-aldaketen doakotasuna ezartzea. Beraz, Donostiako Udal Gobernuari eskatu nahi diogu doako ontzi-aldaketa dagozkion ondorioekin ezar dezala, garraio publikoaren mesedetan eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan aho batez hartutako erabakia errespetatuz.

Izan ere, aldaketak ez du arazo teknikorik, dagoeneko indarrean dagoen deskontu bat handitzea baita. Hori egiteko, Udal Gobernuan dauden bi alderdien borondatea baino ez da behar. Eta hori egin ezean, garraio publikoaren erabiltzaileek behar baino gehiago ordaintzen jarraituko dute.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udaltzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen, eta inongo atzerapenik gabe, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren otsailaren 4ko batzarrean aho batez hartutako erabakia gauzatu eta, beraz, Dbuseko autobusetan garraio operadoreen arteko doako ontzi-aldaketa ezar dezala.

Donostian, 2021eko apirilaren 23an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia